

## Saindu euskaldunak

*Deia*, 1983-09-07.

Euskal liturjiako sainduen izendegi berriak hamalau hartzen ditu kontuan: Hiru *beatu* eta hamaika *saindu*.

Horien artean badira bi, Loiolako Inazio eta Jabierreko Franzisko oso ezagunak direnak; utzi ditzagun oraingoz aipatu gabe, eta hara besteak.

Berriotxoako *Balendin*, Elorrion jaio zen 1827an. Arimak salbatzera irten zen 1856an Asiara. Lehendabizi Manilara, eta hemengo unibertsitatean "Anamiten" hizkuntza ikasten jarri zen. Heldu eta bi hilabetera gotzai laguntzaile izendatu zuten, eta gotzaia martirizatu eta hil ondoren, Balendin berari moztu zioten burua.

*Zudaireko Esteban eta Mayorgako Juan*: Esteban, Ameskoako Zudairen jaio zen, eta Juan, Donibane Garazin; biak nafarrak, beraz. Biak josulagun egin ziren, eta elkarrekin Brasilerara zihoaztela piraten ontzi batek preso hartu eta Martiri bezala hil ziren 1570ean.

*Igokundeko Martin* Gipuzkoan jaio zen (Beasainen edo Bergaran), Franziskotarretan sartu zen; Japoniara joan zen eta han gurutzifikatu zuten beste 26 kidekoekin 1597an.

*Deun Leon*, Normandian jaio zen IXgarrenean; Erroman egin zuten gotzai eta Baionara bidali; Bidasoaren bi aldetan lan egin zuen, IXgarrenaren azken aldera martirizatua, gorpua Baionako katedralera 1557an ekarria izan zen.

*Emeterio eta Zeledonio deunak* Kalagorrrin hil zituzten IIIgarren gizaldian.

*Deun Prudentius*, Arabako Patroi Nagusia da. Armentian jaio zen, Gasteiz inguruan. hemen egun zen gero Armentiako apezpikutegi famatua, uste denez, IXgarrenean, edo lehenago, sortua.

*Garikoitzeko Mikel*, Nafarroa Beheran, jaio zen 1797an; Cambo-n egon zen bikari bezala gero Betharram-era bidali zuten irakasle izateko; hemengo gero Betharram-era bidali zuten irakasle izateko; hemengo nagusi egin zuten. Zerutik hartu omen zuen agindua hor bertan misiolari, sermolariak eta haurren maisuak hezitzeko; lan handi honen zuzendari izan zen hil zen arte: Phaz (paz)-en, 1863an. 1923an egin zuten saindu.

Emakumezko bat besterik ez dugu: *Sainda Vicenta Maria Lopez Bicuña*. Kaskaten, Nafarroako Erriberan, jaio zen; gaztediaz arduratuta sortu zuen *Congregación Religiosa de Maria Inmaculada*; laster mundu guztira zabaldu zena. Madrilen hil zen joan den mendearen azken aldera: Paulo VIgarrenak kanonizatu zuen 1975ean.

*Deun Fermin*, Iruñeko lehen gotzaia, VIgarren gizaldia ezkerro dokumentatua agertzen da; baina Europako tokirik zailenetan lan egin nahi izan zuen, eta azkenik, Amiens-en lepamoztu zioten.

*Deun Saturnino*, Frantziako Tolosatik etorri zen Iruñera ebanjelioa erakustera; euskaldunen apostolua eta Iruñeko elizaren sortzaile bezala aipatzen du Euskal Liturjiako izendegi berriak.